


2-SARRERA Lengoaiak

- 1) Definizioak
- 2) Programazioa



http://commons.wikimedia.org/wiki/File:Major_levels_of_linguistic_structure.jpg



1.1 DEFINIZIOAK Lengoia naturala

- **Lengoia** (Harluxet)
 1. Gizakiek bere pentsamendua azaltzeko eta elkarrekin komunikatzeko duten ahalmena, zeinu-sistema (ahozkoa nahiz grafikoa) baten bitartez (hizkuntza) gauzatzen dena. 2. Komunikatzea ahalbidetzen duen ez-ahozko zeinu-sistema oro.
- **Giza lengoia** (Harluxet)

Gizakiaren zeinu-ahalmena gauzatzen den komunikazio-sistema (adib., gor-mutuen komunikazio sistema edota hizkuntza, hitzeko adierazpidea).
- **Lengoia natural** (Harluxet)

Giza lengoia, pertsonen elkarren artean komunikatzeko erabiltzen dutena (lengoia formalari kontrajartzen zaio).

1.2 DEFINIZIOAK Lengoia formala

- **Lengoia formal** (Harluxet)

Ikur- eta karaktere-multzo finitu batez eta arau-multzo jakin batez gizakiak sortutakoa. Ordenadoreetan exekutatzeko diren **programak** eta hauei dagozkien **algoritmoak** idazteko erabiltzen da.
- **Lengoia sinboliko** (Harluxet)

Makina-lengoia ez den beste edozein programazio-lengoia. Agindu bakoitza ikur batez adierazten da eta ordenadoreak egikari dezan, itzultzaile baten bidez programa makina-lengoia itzuli behar da.

1.3 DEFINIZIOAK Lengoia sinbolikoa

- **Algoritmo** (Harluxet)

Problema baten ebazpenerako eman behar diren **urratsen deskribapen formala**. Programazio-lengoia baten bidez, algoritmoa ordenadore batek egikari dezakeen programa bihurtu daiteke
- **Programazio-lengoia** (Euskalterm):

Lengoia artifiziala, bereziki eta espresuki ordenagailu-programak adierazteko sortua.

1.4 DEFINIZIOAK

Programazio lengoia

- **Goi-mailako lengoia** (Harluxet)

Makina-lengoia baino askoz ulergarriagoa eta makinatik independenteagoa den programazio-lengoia, giza lengoiatik hurbilago dagoena.

- Java, C++, ADA, Basic, Pascal,...

- **Behe-mailako lengoia** (Harluxet)

Erabiltzen duen makinaren menpe dagoen programazio-lengoia. Mihizadura-lengoia eta makina-lengoia behe-mailakoak dira.

1.5 DEFINIZIOAK

Programazio lengoia

- **Mihizadura-lengoia** (Harluxet)

Behe-mailako lengoia sinbolikoa. Lengoaia honetan idatzitako aginduak makina-lengoiako agindu bakarra sortzen du.

- ADD AX, BX


- **Makina-lengoia** (Harluxet)

Ordenadorearen PUZak (prozesatzeko unitate zentralak) zuzenean, itzulpenik gabe, exekuta dezakeen agindu-multzoa. Agindu hauek sistema bitarrean adierazten dira eta bakoitzak eragiketa aritmetiko edo logiko bat adierazten du. Ordenadore batetik bestera alda daiteke.

- 1001 1111 0110

1.6 DEFINIZIOAK

Eskema orokorra



2.1 PROGRAMAZIOA

Urratsak

